# ADIERAZPENA EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA 2026ko MARTXOAK 8

## Eskubideak. Justizia. Ekintza. Emakume eta neska GUZTIENTZAT”

Aurten martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, Nazio Batuen erakundeak “Eskubideak. Justizia. Ekintza Emakume eta neska GUZTIENTZAT” leloa aukeratu du. Lema horren ildotik, adierazpena sinatzen dugun unibertsitateok mundu osoko emakume eta neska guztien giza eskubideen benetako berdintasunaren aldeko konpromisoa berresten dugu.

Lelo horrek gogorarazten digu berdintasuna ez dela helburu abstraktu bat, ezta lorpen sendo eta finkatua ere. Etengabeko zeregina da, berme juridikoak, borondate politikoa eta erakundeen etengabeko ekintza eskatzen dituena.

Eskubideei buruz hitz egiteak baieztatzen du emakumeek eta neskek aukera izan behar dutela hezkuntzarako, parte hartzeko, autonomia ekonomikorako, osasunerako, segurtasunerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako. Eskubide horiek benetan erabili eta gauzatu gabe ez dago erabateko herritartasunik, ezta demokrazia sendorik ere.

Justiziaz hitz egitea desberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela eta emakume guztiei ez dietela berdin eragiten onartzea da. Soldata-arrakalak, lanbide-segregazioa, prekarietatea, zaintzako gainkarga eta genero-indarkeria egiturazko desberdintasunaren adierazpenak dira. Justiziak eskatzen du arrakala horiek identifikatzea, horien arrazoiak aztertzea eta politika publikoen eta erabaki instituzional arduratsuen bidez zuzentzea.

Ekintzaz hitz egiteak konpromiso formaletatik harago aurrera egitea dakar. Berdintasun planak ezartzea, horien eragina ebaluatzea, baliabidez hornitzea eta benetan aplikatzen direla bermatzea dakar. Hezkuntzan, ikerketan eta kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea dakar. Edozein diskriminazio motaren aurrean ausarki jokatzea esan nahi du.

Unibertsitate izanik, berariazko erantzukizuna hartzen dugu gure gain esparru global horretan. Gure prestakuntza eta zientzia misioak pentsamendu kritikoa sustatzeko garrantzizko posizioan kokatzen gaitu, emakumeek ezagutzaren eremu guztietan

egiten dituzten ekarpenak ikusarazteko eta giza eskubideekin eta berdintasunarekin konprometitutako belaunaldiak prestatzeko.

“Emakume eta neska GUZTIENTZAT” diogunean, konpromiso inklusiboa berresten ari gara, jakin baitakigu desberdintasunak areagotu egiten direla beste faktore batzuk batzen badira: jatorria, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea, adina edo egoera sozioekonomikoa. Berdintasunak intersekzionala eta unibertsala izan behar du.

Martxoaren 8 honetan, eskubideekin, justiziarekin eta ekintzarekin dugun konpromisoa berritzen dugu.

Emakume eta neska guztiengatik.

Gaur eta egunero.

2026ko martxoak 8

**Behean sinatzen duten unibertsitateak Unibertsitateen Bikaintasunerako Genero Berdintasuneko Unitateen Sareko kide dira:**

Universitat d'Alacant
Universidad de Alcalá
Universidad de Almería
Universitat Autònoma de Barcelona
Universidad Autónoma de Madrid
Universitat de Barcelona
Universidad de Burgos
Universidad de Cádiz
Universidad de Cantabria
Universidad de Castilla-La Mancha
Universidad Complutense de Madrid
Universidad de Córdoba
Universidade da Coruña
Deustuko Unibertsitatea
Universidad de Extremadura
Universitat de Girona
Universidad de Granada
Universidad de Huelva
Universitat de les Illes Balears
Universidad Internacional de Andalucía
Universitat Internacional de Catalunya
Universidad de Jaén
Universitat Jaume I de Castellón
Universidad de La Laguna
Universidad de La Rioja
Universidad de Las Palmas de Gran Canaria
Universidad de León
Universitat de Lleida
Universidad de Málaga
Universidad Miguel Hernández de Elche
Universidad de Murcia
Universidad Nacional de Educación a Distancia
Universitat Oberta de Catalunya
Universidad de Oviedo
Universidad Pablo de Olavide
Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad Politécnica de Cartagena
Universitat Politècnica de Catalunya
Universidad Politécnica de Madrid
Universitat Politècnica de València
Universitat Pompeu Fabra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Universitat Ramon Llull
Universidad Rey Juan Carlos
Universitat Rovira i Virgili
Universidad de Salamanca
Universidade Santiago de Compostela
Universidad de Sevilla
Universitat de València
Universidad de Valladolid
Universitat de Vic- Universitat Central de Catalunya
Universidade de Vigo
Universidad de Zaragoza